

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

# 911

*EBAZPENA, 2024ko otsailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2024. urtean finantzatzeko baliabide ekonomikoak. Agindu horren bidez ezartzen dira gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2024ko otsailaren 13ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak onartzeko emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan ezarritako dirulaguntzak finantzatzeko, 2024. urtean; eta, Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko n) apartatua xedatutakoarekin bat –maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuan onartu ziren estatutu horiek–, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak bigarrenz aldatzen dituen abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak emandako idazketaren arabera, Lanbideko zuzendari nagusiari dagokio haiek argitara ematea.

Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2024ko otsailaren 13ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak onartzeko emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan ezarritako laguntzak finantzatzeko, 2024. urtean –ebazpen honen eranskinean dago jasota–.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horrek ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak deialdia onartzeko hartu duen erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakiokela organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daitekeela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 14a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

## ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN  
ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUAK ETA ENPLEGU  
ETA GIZARTE GAJETAKO SAILBURUAK GAZTEENTZAKO IKAS-EKINEZKO HEZIBI  
PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEKO EMANDAKO 2012KO  
URRIAREN 3KO AGINDU BATERATUAN EZARRITAKO LAGUNTZAK FINANTZATZEKO,  
2024. URTEAN

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak onartzeko emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuaren helburua da: gazteentzako ikas-ekinezko lanbide-heziketaren eredia garatzea, Lanbide Heziketako ikasleentzat eta gazte langabeentzat, lanbide-kompetentziak hobetu ditzaten, eta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat eskura dezaten, alternantziako araubidean, enpresan ordainduta egiten duten lan-jardunarekin txandakatuta; hartara, horrek lagundu egingo du enpresen beharrianak eta langileek lortzen dituzten kompetentziak egokitzen.

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak, aldatu egin du Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Horrela, prestakuntza-kontratuak arautzen dituen 11. artikulua birformulatu du, eta prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuaren ordean ikas-ekinezko heziketa-kontratua jarri du; gainera, kontratu horren iraupena aldatu du, hiru hilabetetik bi urtera gehienez ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta autoenpleguaren eta enpresa-sorkuntzen sustapenerako programak kudeatzeko eta dirulaguntzetarako deialdiak onartzeko eta izapidetzeko eskumena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearekin bat eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzeko maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 3.b) artikuluekin bat.

2014ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez aldatutako 2012ko urriaren 3ko Agindu hori, Enplegu eta Gizarte Gaietako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuena, indarraldi mugagabekoa da, eta, haren 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan edo aurrekontuetarako lege-mailako arauetan esleituko da programa finantzatzeko zuzkidura ekonomikoa. Halaber, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Lanbideko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez argitara emango du urteko zuzkidura zenbatekoa den, programa honen esparruan egindako prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen dirulaguntzak finantzatzeko, eta Hezibi programako ikas-ekinezko profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko proiektuetako kostu osagarria finantzatzeko. Indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontu-aldaketarik onartzen bada, aurrekontu-ekitaldi batean emango diren laguntzen bolumen osoak ezin izango du gainditu ez aipatutako esleipena ez haren igoeraren ondoriozkoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak ezartzen dituen 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2024ko ekitaldiko Dirulaguntza Plan Estrategikoan aurreikusita daude. Organismo autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen plan hori, 2023ko abenduaren

14ko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, eta, hartara, bete egin zuen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 6.1 artikuluan xedatutakoa. Erabaki hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orrian argitaratu zen. Dirulaguntza horiek Planean jasotako helburu estrategikoari laguntzen diote: «aukera-berdintasuna, euskal enplegu-politikaren funtsezko ardatz gisa». Dirulaguntzon helburua da prestakuntza lanarekin tartekaturik egin dadin sustatzea, profesionaltasun-ziurtagiriak ateratzen ari diren langabeak kontratatuz; eta modalitate horri heltzen dioten prestakuntza-zentro eta enpresei gastuak ordaintzen lagunduz, kudeaketa-lan handiagoa egin behar izaten baitute ikasle horientzako bitartekaritza, tutoretza eta ebaluazioan.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2024ko otsailaren 13ko bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Lehenengoa.– Baliabide ekonomikoak.

Baliabide ekonomikoak esleitzea 2022ko ekitaldian Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak onartzeko emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko (agindu hori Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko abenduaren 10eko Aginduak ordeztu zuen). Hartarako, 3.000.000 euro dira guztira; horietatik, 900.000 euro 2024ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta, 2.100.000 euro, 2025eko konpromiso-kredituari, programa honen kargura: 2104105000 32311445400 2024/000510.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legeak esleitzen ditu laguntza hauek finantzatzeko guztizko baliabide ekonomikoak.

Hala badagokio, kopuru hori handitu egin daiteke; baina, horretarako, aurrekontu-aldaketak onartu beharko dira indarrean dauden legeen arabera. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

Bigarrena.– Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak egindako lan-erreformaren eragina.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuari buruz egiten diren aipamenak ikas-ekinezko heziketa-kontratuari buruzkoak direla ulertuko da. Kontratu hori urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 11.2 artikuluan arautzen da.

Enpresek egiten duten prestakuntza-lanagatiko dirulaguntza, aipatutako aginduaren 13.4 artikuluan aurreikusitakoa –2014ko abenduaren 10eko Aginduak emandako idazketan–, ikas-ekinezko heziketa-kontratu berriei aplikatuko zaie, horien iraupena edozein dela ere, lege ezarritako mugen barruan (3 hilabete eta bi urte bitartean), aginduaren 5.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontratu-urte bakoitzeko 2.000 euroko aurreikusitako dirulaguntza emango da lanaldi osoko kontratuetan, eta iraupenarekiko eta lanaldiarekiko proportzioan emango da, baldin eta kontratua urtebete baino laburragoa bada eta lanaldia osoa ez bada.

Hirugarrena.– Izapidetze elektronikoa.

Deialdi honen esparruko dirulaguntzak jasotzeko eskabideak elektronikoki izapidetuko dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aplikazio informatikoaren bidez (LAN-F), eta erakundearen legeko ordezkaria den pertsonaren sinadura izan beharko dute.

Aplikaziora sartzeko aukerarik ez duten entitateek edo enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orriaren bidez egin ahal izango dute eskaera: [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)

Enpresetarako administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, non izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen baitira, helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1038112>

Prestakuntza-entitateetarako administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, non izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen baitira, helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1038113>

Eskabidea elektronikoki izapidetu ahal izango da ordezkari baten bitartez. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

Laugarrena.– Eskabideak kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuak emandako idazketa kontuan hartuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritza da eskabideak kudeatu, izapidetu eta ebazteaz arduratzen den organoa.

Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritzak emandako ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarri.

Bosgarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legean xedatutakoarekin bat etorritik (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, 22. artikuluko 5. apartatua), eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epea igaro ondoren –2012ko apirilaren 18ko Aginduaren 4.4 artikuluan dago aurreikusita epe hori– ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira.

Seigarrena.– Dirulaguntzak ordaintzea.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, entitate eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan egon behar du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren hirugarrenen erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

Zazpigarrena.– Onuraduna izateko eta dirulaguntza emateko betekizun orokorrak.

1.– Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, onuradunak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartu behar du 20/2023 legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Urriaren 3ko Agindu bateratuaren 17. artikuluan aurreikusitako betekizunez gain, agindu hori 2014ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez aldatu zen, dirulaguntzen erakunde onuradun izateko honako debeku hauek aplikatu behar dira:

a) Zigor-zehapena edo administrazio-zehapena ezarrita izatea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen diona, honako hauek barne:

– Sexu-bazterkeriagatik ezarritako zehapena, lege hauetan ezarritakoaren arabera: emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko

Legearen testu bategina (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

– Ebazpen irmo baten bidez zehapen osagarri bat jasotzeagatik, Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

b) Legez ezarritako kausaren bat izatea, laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten diona, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitakoak barne:

– Ez edukitzea berdintasun-planik indarrean, nahiz eta enpresa horretara behartuta egon Estatuaren araudiaren arabera.

– Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edota indarkeria sexualak prebenitu eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

c) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez zehatuta egotea, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

d) Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota betetzen ez dutenak, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

e) Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. Artikuluan aurreikusitako debekuren bat izatea.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatzen ez dituen eskakizunak, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da; adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

Zortzigarrena.– Datuak babesteari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardura honako bi xedapen hauen mende egongo da: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, eta jardueraren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Biltzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoiei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori [www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/) helbidean argitaratu da.

Hemen kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml>